

TERESA DEUNAREN USTARITZEKO MIRARIA

1. Sarrera

Lisieux-ko Santa Teresa laster asko ezagutua et maitatua izan zen Euskal Herri guztian. Gaur egun, bere irudia gure eliza eta kapera gehienetan dago. Lur hau, bestalde, hain ekinkor eta hainbat eta hainbat misiolariren jaioterria denez gero, bidezkoa zen, ba, Santa gazte eta misioen Zaindari hau, Xabierreko Frantzisko, euskaldun Santauarekin batera, txeraz onartzea.

Teresaren eta Euskal Herriaren artean zerikusiren bat aurkestea nahi izan dugunez gero, haren lehen mirari ofiziala aurkestea pentsatu dugu, hau da, Teresaren beatifikazio eta kanonizaziorako balio izan zuena: Ustaritzen, Lapurdiko herri batean, gertatutako miraria. Gertaera garrantzitsu hau gutxi ezagutua izan arren, kontatu egingo dugu... Jazoera hau, miraria egin zen pertsonarekin batera azalduko dugu. Gero, agiri honi dagozkion agiri garrantzitsuenetarikoz batzuk transkribatuko ditugu.

Ustaritzeko "Kurutzeko Alaben" begikotasuna eskertzea nahi dut, agiri hauek beraiek eman baitzizkidaten.

2. Ahizpa Luisa Saint-Germain (Maria Lauroa).

Ahizpa Luisa Saint-Germain (Maria Lauroa) SUS-en (Pir. Atl.) 1987an jaiotzen. Ustaritzeko Nobiziatuara 1911ko Otsailean sartu zen.

Nobiziatuan zegoela ere urdailetik ez zebilen ongi, baina ez profesia debekatzeko punturaino.

Gero, 1913aren hasieran, eskolak emateko Espainiara, Bilbora, bidali zuten. Han, laster, min eta odoljarioak zirela eta, bere egitekoari uko egin behar zion eta berriro Ustaritzeko erizaindegira etorri. Hilabete batzuk geroago, hobekuntza izan zuen; eta bere asmaoa betetzeko, behin eta berriro Bilbora itzultzen da. Baina laster goitikak eta odoljarioak gogorrago eraso zioten eta ahizpak Ustaritzera etorri behar izan zuen. Benetan ere ebakuntzarako ahulegi zegoenez gero, hilabete osoak ia ezer jan gabe igarotzen ditu. Geroago eta makalago, heriotzara bidean dago. Gaixoen Sakramentua ematen diote. Gaixoak, krisi oso bortitzak izan arren, iraun egiten du.



Luisaren argazkia horman kokatua

pa Luisa St.-Germain-ek bere egoera gogo onez hartzen du eta, Jaunaren borondatea egin dadin, Ahizpa Teresa imitatzen saiatzen da.

Baina 1916ko irailean, Gurutzeko Alaba bat Ustarizetik pasatzen da eta zirikatut egiten du berriro ere bere sendakuntza eska dezan. Komunitatearekin batera egiten du. Eta bat-batean, 1916ko irailaren 10eko gauean, Ahizpa Luisa Saint-Germain-ek TERESA "ikusten du" berarengana hurreratzen eta diotsola: "Neure hitza ematen dizut: izan zaitetz eskuzabal, laster sendatuko baitzera". Gero, desagertu egin zen.

Goizean, bere ondoan lo egiten zuten erlijiosok gelako lurra arrosa-hostoz beterik aurkitu zuten.

Azken bost egunetan izugarritzko eta ia jasanezinezko sufrimenduak igaro zituenez gero, hurrengo irailaren 21ean gertatu zen sendakuntzaren aurrezantzua izan zen.

Orduan, 1916ko irailaren 21 iluntzean, hilzorian zegoela uste genuenean, Ahizpa Luisa St.-Germain hobeki loak hartzen du. Biharamunean, goizeko 5 terdietan, erabat sendatuta esnatu zen: minik gabe, gorputzaldi onean, baina ahul eta goseti.

1915eko Maiatzean, Ahizpa batek, Lisieux-ko Ahizpa Teresaren eskuizkribu autobiografikoak, "Anima baten historia", ematen dio. Eta komunitateak, karmeldar Txikitxoaren bitartez Ahizpa Luisa Saint-Germain-aren sendakutza eskatzeko, Bederatzziurrena egitea pentsatu zuen. "Bederatzziurren hau poztasunez egin nuen -dio gaixoak-, Ahizpa Teresa asko maite baitut. Bere presentzia ere sentiarazi zidan: bere eskua, neu ziurtatzeko, neure buru gainean jarri zuen eta zirrara oso ezititsua sentitu nuen; eta hiru egunean, ahizpek azaldu ezin zuten arrosa lurrin gozokoa hedatu zen gela guztian. Oraindik, luzaroan gaitza jasan behar izan nuenz gero, *grazia honek* kuraiatu egin behar ninduen. Gaitzak jarraitu egingen zuen". Bitartean, Ahiz-

Jaiki nahi du, Meza Santua entzun eta jan... Une hartan ez diote jaikitzeo baimenik ematen, baina bai gosari ugari bat.

Egun hartatik aurrera, Ahizpa Luisa St.-Germain-ek arin bai arin berritu zituen bere indar guztiak eta Komunitateko ohizko bizimodua jarraitu.

Zaindu zuen sendagileak, Ustaritzko Goyheneche Doktoreak, zientifikoki hain bizkor sendatu ezin den sendakuntza egiaztatzen du.

Gertaera hauek, isilean gordetzen ditu Komunitateak eta ia inori ez dio kontatzen sendakuntza... Lisieux-koei inondik eta inora ere ez.

Bien bitartean, bi urte geroago, jazoera hau ezagutzen zuen, eta Lisieux-ko Karmelerekin harremanak, batez ere Ama Aines Jesusenarekin, zituen Ustaritzko andere batek, Iribarren Andereak, berria ematen dio.

Hala ere, Karmeleko adiskideek, Ahizpa Teresaren Beatifikaziorako mirariak itxaroten zituzten eta, gestioak egiten hasi ziren.

Sendakuntza orokorra eta iraunkorra dela testifikatzeko, sendagileek behar ziren azterketa guztiak egin zituzten. Pariseko bi zirujau ospetsuk baieztatu zuten eta testuak hango artxiboetan gordeta daude. Beraien burutzapenak: ez dago histerismorik, mimbizirik ere ez, baina bai urdailean eta duodenoan ultzera larria. Sendakuntza honen ostean, ez dugu inolako arrastorik aurkitu.

Testuak

1. Ahizpa Luisa Saint-Germainen kontraera (1916 Iraila)

Nire Nobiziatu garaian (1911-1912), goitika mingarriekin batera askotan izan nituen buru eta urdaileko minak. Halere, nire osasuna profesa ukatzeko adina ez zen gaizkitu eta, ondoren Espainiara bidali ninduten. Baina 1913ko hasiera-hasieratik, urdaileko krisiak ugaritu eta berritu egin ziren; eta odolez nahastutako odoljarioek ultzera bat eratu zela barnean probatu zuten.

Berrito ere, Ustaritzera itzuliaz batera, aurrenik janeurria jarri zidaten: arrautzak, esnea eta bismuth zati batzuk. Azaroaren 14ko gauean aurretiko krisia baino mingarriagoa etorri zitzaidan. Egun batzuetarako janeurri hidrikoa eta atsedenaldi orokorra jarri zidaten. Sendagileak uste zuen urdail bameko zauriak pilorotik jarraitu eta duodenoaren goialderaino heltzen zirela. Jan ostean, bi edo hiru ordu geroago, egunero-egunero erraie-tako minak sentitzen nituzenez, eta batzuetan, gauez gehiegi izaten zirenez, haiek, minak



Ustaritzeko Gurutzeko Alaben etxea.

baretzeko, sendabide gogorrak agindu zituzten. Nahiz eta beharrezkoa izan ebakuntza, ni aurkitzen nintzen egoera anemikoak ezinezkoa egiten zuen. Hala ere, zortzi hilabete eritegian zaintzen egin ondoren, ongi sentitzen nintenez, behin eta berriro eskolak emateko baimena eskatu, eta Espainiara etortzeko baimena lortu nuen.

Gaitza lo eraginean baizik ez zegoen: goitikak eta odoljarioak laster berrituz eta ugarituz zihoaizen; maizenik berritzen ziren. Espainiako medikuentzat argi eta garbi zegoen ebakuntza derrigorrezkoa zela, baina, ostera ere, neure ahultasunaren ahultasunagatik atzeratu egin zen. Berriro ere Probintzi etxera joan behar nuen.

Bidaja oso penagarria izan zen eta nire egoera, Ustaritzera heldu eta handik bigarren egunera, geroago eta larriagoa. Orduan, elizakoak ematea pentsatu zuten. Hain ezereztaturik nengoan, buruko mugimendurik txikiak edo begiak zabaltzeak, besterik gabe, neckatu egiten ninduten. Nire zurbiltasuna hain markatua zen, geroztik "Ahizpa Zuri" deitzen zidaten. Horrela 32 egun egin nituen. Nire elikadura bakarra, hartu eta ia berehala kanpora botatzen nuena, ur zurrutada hotz-hotz batzuk baizik ez ziren. Hau dela eta, bai urdailean, bai hesteetan sastakada minak izaten nituen; urraketa edo labainkada zentzuzioa sortzen zidaten, bai urdailean eta bai hesteetan. Bizkarrean eta omoplatoen artean ere sarritan oinaze handiak sentitzen nituen.

Komunitateak, ni senda nadin, Ahizpa Teresa Jesus Haurrenari bederatziurrena egitea pentsatu zuen. Ekainaren 3tik 11ra egin zen. Anitz poztu ninduen, ba Lisieux-ko Karmeldar maiteari neuk ere ototiz egiten bainion. 1915eko uztailaren 1ean, goizeko hirurak inguruan, agertu zitzaidan eta hitz hauek esan zizkidan: "Zintzoro errexitatu egunero hiru

Gure Aita, Agur Mari eta Gloria hiru aldiz, hauxe esanez: Jesusen Bihotz Sakratua babes-tu Eliza, Frantzia eta Kongregazioa. Zabal debozio hau zeure Ahizpen artean”.

Ahizpa Teresa hurrengo egunean eta bi egun geroago ere ordu berean berriro agertu zitzaidan eta hitz berberak esan zizkidan. Gainera, 3an goizean, ni ziurtatzea nahi zuen bezala, bere eskua nire buru gainean ezteki jarri zuen. Gelak, hiru egun hauetan, Ahizpek ezin ulertu zuten moduko erako usaina zeukan.

Hala eta guztiz ere, gaitzak jarraitu egiten zuen eta nik Ahizpa Teresari beti otoitz egiten nion, baina, Jaun Onaren borondatea izan dadin, neure sendakuntza eskatu gabe. Nire oinazeak, Santak esan zidan intentzioengatik eskaintzen nituen.

1916ko irailean, gure Ahizpa batek, Ahizpa Julia-Germain-ek, Ustaritzetik pasatzean nire eskariak berritzeko aholkua eman zidan. Egin nuen, bai, egin hainbat onbide-egintza otoitzarekin batera, neuk ere Jesusen Bihotza, Teresaren antzera, berari opari txikitxoak eskainiz, ikus dezadan.

Irailaren 10ean krisi berri batek oheratuta, Santa Teresatxo maitearen beste agerpen bat izan nuen. Hark diost: “Eskuzabal izan zaitez, laster sendatuko zara eta”. Hura joan ondoren, nire gelan lo egiten zuten Ahizpek, nire ohearen inguruan arrosa-hostoak, kolore guztietakoak, aurkitzeaz harrituta zeuden.

Irailaren 21ean, 5 egun sufrimenduz beterik igaro ondoren, goitikak eta odoljarriok batz bestea egunero bi izanik, ezereztuta nengoan. Behin baino gehiagotan erizainak konorte gabe aurkitu ninduen ohean. Iluntzeko 8ak inguruan krisi bortitzagoa etorri zitzaidan. Alabaina, esperantza guztiak galdu nituenean, 9ak inguruan loak hartu eta egun-sentiaz batera esnatu nintzen: sendatuta nengoen!... Minik gabe... nire gorputzaldi onak esaten zidan gaitza desagertu zela. Ahultasuna eta gosea baino ez nituen sentitzen. Meza Santua entzutera joateko baimena eskatzeko alaitsu jaiki nintzen. Nire Nagusi duinak zentzun onez ohera bidali ninduen. Baina gose nintzen eta, gosari eder bat eman behar zidaten nire gose hori baretzeko; eta eguerdian, gaixotegiko jantokian bazkaltzeko baimena eskatu nuen. Azken bost urteetan egin ez nuena egin nuen: okela jan (zehatz-mehatz esateko odolostea).

Oraindik, obediencia dela eta, egun batzuetan gaixoen araua jarraitu behar izan nuen. Gero, bizimodu arrunta egiteko baimena eman zidaten. Ordutik, osasuntsu naizenez gero, Komunitateko ofizio guztiak jarrai ditzaket.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrenarekin benetan eskerronez nago eta debozioa zabal-tzen ahaleginduko naiz.

Ustaritzen, 1916 ...
Ahizpa Luisa St. Germain
Kurutzeko Alaba

2. Sendagile Doktore Le Bec-en azterlana (1918)

Doktore Le Bec-ek egindako Azterlan analitikoak 20 orri ditu. Azken hirurak baino ez ditut itzuliko, bertan aurkitzen direlako bere azterlanaren konklusioak.

Kurutzeko alaba den Ahizpa Luisa Saint-Germain-en gaixotasunaz zehatz-mehatz azterlana egin ondoren, konklusio hauek jarri ditzakegu.

Ahizpa honek urdailean ultzera izan du, agian duodenoko lehen atalera hedatuta.


Hark inon ere ez zeukan minbiziaren aztarnarik.

Hilekoan, histerikoei gertatzen zaien moduan, ez zeukan osagarrizko odoljariorik.

Odoljario bortitzak eta ugari galdutako odolak erakusten duten bezala, era honetako ultzera hau oso larria zen. Hark urdail edo duodenoko odol-hodiren bat urratuz gero, gaixoa arin hiltzeko arriskuan jartzen zuen.

Odol-goitika eta sinkopeen ondorioz, 1916ko irailaren 21eko iluntzean, Ahizparen egoera, Doktore Goyenechek ikusi zuenean, batez ere oso larria zen. Argi dago, ba, hilzorian zegoela.

Biharamun goizean sendatuta aurkitzea, naturala izan al zen? Nik zalantzarik gabe ezezko erantzuna ematen dut. Medikuntza esperientziak diosku: sendakuntza kasuetan osasunera bihurtzea astiro-astiro egiten dela. Gaixoek luzaroan janeurri hertsian egon behar dute, eta okerrik txikienean berriro gaixotzen dira. Ahizparekin erabat alderantziz gertatu da.



Luisa sendatu zen gela

Lo ondo egin eta gero, mina erabat desagerturik, janaria hartzeko behar-beharrezko premian esnatzen da. Lehendabiziko egunean bost janari egin zituen. Gogoz jan zituen: kafesnea, ogia, salda, okela, arrautzak, ardoa, gazta. Janari hauen artean ultzeraren aurka-koak hauek dira: kafea, ardoa, baita ogia eta okela bezalako solidoak ere.

Jan-edan hauek lehen egunean hasi eta beste egunetan ondo jasateko, ultzerak erabat desagertu egin behar zuen. 21 gauean, oraindik zegoen hematosiak, ultzera zegoela agertzen zuen. Horregatik, Ahizpa goizeko 5 t'erdia inguruan esnatu zenean, hau da, 6 edo 7 ordu geroago, sendatuta zegoen eta ultzera erabat desagertuta.

Dena dela, medikuntzan inoiz ere ez dira gauzak hain bizkor sendatzen.

Ultzeraren orbantzea (zikatrizatzea) beti astiro-astiro egiten da, gehienetan hilak eta hilak behar direlako. Horregatik, nik esan dudan bezala, gaixoak janeurri hertsian jarzen ditugu.

Baina sendakuntza medikal naturalean ez da sekula ere, odoljarioen bitartez, egoera sinkopean gaixorik ikusi; ezta azken odol-goitikaren ostean, ordu batzuk geroago, zurgatu eta hainbeste janari desberdin digeritzen, ahizpak egin duen bezala. Ultzera zein momentutan orbandu zen, orbaina azalera guztian bat-batean edo pixkanaka-pixkanaka egin zen jakitea ezinezkoa da.

Guk hauxe baino ezin dezakegu esan: gertatutakoa ez dela naturala izan. Hain zoli egin zenez, benetan ere naturaz gaindikoa da, ba denbora zerbait egiteko ez da gai izan eta.

Argi dago, ba, sendakuntza hau egiazkoa eta ziurrezkoa dela. Harrezkero, ahizpak, mundu guztiak bezala jan, eta inolako eragozpenik gabe Komunitateko araua jarraitzen du. Indarrak fite etorri zitzaizkion. Gaur egun, haren gorputzak osasun sendoaren seinale guztiak ditu. Egin diodan kontrolak erabat sendaturik dagoela diost, eta gaitzari egin diodan jarraikuntzaren ikerketak konklusio honera narاما: sendakuntza azkar hau naturaz gaindikoa dela.

1918ko martxoaren 11an
Doktore Le Bec
San Jose ospitaleko Zirujaua
26, rue de Grenelle, Paris

3. Teresa Beatifikatzeko behar izan zen aprobaturako mirariaren Dekretua (1923).

Orain Pio XI.ak Ustaritzeko miraria onartu zuen hitzaldia zatika aurkeztuko dut.

Teresa Jesus Haurarena beneragarria Beatifikatzeko Errito-Kongregazio Santuaren menpeko mirariak onartu zituen Dekretuaren irakurketa 1923ko otsailaren 11an Vatikanoko Kongsistorio Aretoan egin zen.

Aita Santuak, bere Koroazio urteurrenaren bezpera zela eta, onguraz hautatu zuen egun hau, bere aitasantutzako lehen urtea zorioneko zantzuaren babespean buka zedin.

DEKRETUA

Karmelgo Lekaime Oinutsetako, Lisieux monastegiko, Jainko Zerbitzari Agurgarria den, Ahizpa Teresa Jesus Haurrenari buruz, Bayeux eta Lisieux-ko Elizbarrutiak ematen duen erabakiaren DEKRETUA.

Dekretu apostoliku honek dioenez, zalantzan ere jarri ezin den itzelezko aurrerapena egin du azken egun hauetan, bere garapen hain bizkor eta zoriontsuan, Jaunaren Serbitzari Beneragarri Ahizpa Teresa Jesus Haurrenaren Beatifikazioko Auzigaiak. [...]

Hori dela eta, kristau mundutik datozkigun era askotako mirari harrigarri eta ia kontaezinezkoen artean, Teresaren bitartekotasunari esker Jaunarengandik lortuak, bi sendakuntza aipatu behar ditugu: Ahizpa Luisa Saint-Germainena eta Karlos Anne apaizarena. Biak legejakintza Kanoniko eta Errito-Kongregazio Santuaren ohiturak eskatzen zuen bezala, Auzagai honen aldezkari izendatu zituzten, eta, azterketa igarotzeko, Auzi-mahai Sakratu honen agindupean jarriak izan ziren. Eztabaidatik garaile ateratzeko, sendakuntza hauek mirarizkoak zirela probatu behar zen. Behar den moduan probatuak izan ziren: arrazoi onez eta gainezka, zorionezko amaiera izan baitzuen.



Izan ere, alde batetik, andre gaixo bat, Luisa Saint-Germain, eta bestetik, gizon gazte bat, Karlos Anne apaiza, gaitz organiko batek jota, hau da, jakintsuen esanetatik gaixotasun batek egindako lesio anatomiko eta patologiko konkretu eta kokatua. Gainera, bi gaixok, beraren Zerbitzari leial den Teresa Jesus Haurrena Beneragarriaren bidez Jaunak sendatu zituen. Kongregazio Santuak, pertsona horien egoera eta lesio organikoak ikusirik, sei sendagile jakintsu izendatu zituen, hiru sendakuntza bakoitza aztertzeko. Seiek, arte eta denboraren laguntza izan arren, naturaren indarrak ez zirela sendatzeko gai izan baiezta zuten. Arazo hauei dagokienez, zuzenbidezko dossierretan oinarritu eta gero, bakoitzak, bereiz, jarri zituen bere oharrak eta baietza. Ados zeuden. Auzigaiaren abokatua, jakintsuen konklusioak kontuan harturik, buru eta bihotz sendagileen argudioak baliatzen saiatu zen. Sendagile eta zirujau ez direnei ere ulergarri eta ulertaraza egiten zaie, zolitasunez eta trebetasunez ondo baino hobeto garatu eta argitu zuen eta. [...]

Eta hark bere erabakia jakinarazi zuenean, Aita Santuak Berrogeita Hamargarren urtea zela eta, baita bi gertaera zorionsuren egun egokia ere, hau da, Lurdes-eko Andre Maria Birjinaren jaia eta Bere Koroatze urteurrenaren bezpera, egun hau hautatu zuen horretarako. Meza Santua debozio handiz ospatuz, Aita Santuak, Errito-Kongregazio Santuaren Prefektua, Auzigaiaren Txosten-emaile eta Porto eta Santa Rufinako Gotzain Andoni Vico Kardinal Txit Agurgarriari Vatikanora etorrarazi zion; honekin batera, Fedearen Aldezlari Orokorra den Aita Aingeru Mariani Agurgarriari, eta neuri, behean sinatzen duen idazkari honi; eta, denon aurrean, bere Epaia eman zuen: "Mirari bakoitzak bere errealitatea du: Lehendabizikoa urdailean ultzera hemorragiko oso larriak jota zegoen Kurutzeko Alaben Kongregazioko Ahizpa Luisa Saint-Germainen sendakuntza osoa eta bat-batekoa; eta Bigarrena, zulatzen zion tuberkulosi zoli, hemoptoikoak jota zegoen Karlos Anne apaizaren sendakuntza osoa eta bat-batekoa".

Eta 1923ko otsailaren 11an, Dekretu hau promulgatu, eta Errito-Kongregazio Santuaren Aktetan idazteko agindua eman zuen.

A. Vico Kardinala,
Porto eta Santa Rufinako Gotzaina,
Errito-Kongregazio Santuaren Prefektua

L. † S. Errito-Kongregazio Santuaren idazkaria, Alexandre Verde.

4.- Teresaren Kanonizazioko bulda (1925)

PIO GOTZAINA

Jaunaren Zerbitzarien Zerbitzaria
betiren betiko.

Gaur, Jesukristo Gure Jaunaren, Pedro eta Paulo Apostolu Santuen eta Neure Burupe izenean, Erruki-urte honetan, pozez beterik eta alaitsu, Neronek Birjina Beneragarrien artean jarri dudan Teresa Jesus Haurrena, Karmelgo Ordena Oinutsetako Moja, eta Elizak eredu maitagarri bezala anitz maite dituen seme-alabei proposatutakoaren Kanonizazio Aintzatsua ospatzen dugu. [...].

Auzigai honek hain garapen bizkorra eta zorionsua, baita laguntza alaitsua izan zuenez ere, Teresa Agurgarriaren bitartekotasun kementsuari esker kristau mundu guztian askotariko mirariak lortu omen ziren. Guztietatik bi proposatu zituzten aztertzeko. Lehenengo Kurutzeko Alaben Kongregazioko Ahizpa Luisa Saint-Germain-i dagokion gaitxotasun organikoa, alegia: lesio anatomiko eta patologikoa, hau da, urdaileko ultzera hemorragiko oso larria. Beneragarri Teresa Jesus Haurrenaren bitartez Jaunari erregutu eta gero, gaixoak, hiru sendagile ospetsuk aho batez aintzat hartu zuten bezala, osasuna oso-osoan berreskuratu zuen; gainera, bakoitzak, banan-banan, Errito-Kongregazio Santuaren eskaria idatziz jarri zuen. [...].

Eska dezagun guztiok geure beharrianengatik Santa Teresa Jesus Haurrarenaren babesa, geuri ere, haren bitartekotasunagatik Arrosa Euriak isur dakizkigun, hau da, behar ditugun graziak. [...].

Erroman, San Pedro ondoan eginda, Jaunaren mila bederatzichun eta hogeita bostean, maiatzaren hamazazpigarren egunean, eta Neure aitasantutzaren laugarren urtean.

Ni, Pio, Eliza Katolikoaren Gotzaina.

(Jesus M. Iturbe)